Tokiko Gobernu Batzarrak gaurko bilkuran onetsia.
Irun, 4 DE AGOSTO DE 2021
IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Aprobado por la Junta de Gobierno Local, en sesión de este día.

SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Arlo sustatzailea:	**Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria**
Área promotora:	***Bienestar Social, Educación y Juventud***
Espediente kodea:	**2020ZAME0030**

IRUNGO HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEA

CONTRATACIÓN DE LA ASISTENCIA TÉCNICA PARA DINAMIZACIÓN DE LA PARTICIPACIÓN INFANTIL Y ADOLESCENTE DE IRUN

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

0. SARRERA

2021-2024 aldirako I. Haur eta Nerabeentzako Planaren helburu nagusietako bat da Irungo haurrek eta nerabeek hiriko bizitzan parte hartzea, eragiten dieten gaietan parte hartu eta udal-erakundeetan eragiteko gaitasuna izatea, eta haietan hartzen diren erabakien parte izatea. Irungo Udala jakitun da haurrak eta nerabeak eskubide osoko herritarrak direla, eta, horregatik, plan honen jarduera-printzipioetako bat da udal-ekintza birbideratzea haurrentzako hiria eraiki beharrean espazio publikoa eta tokiko ingurunea haurrekin eta nerabeekin batera eraikitzen saiatzeko, eskubide osoko subjektu politikoak direla aitortzen baitu planak.

Baina, horretarako, ezinbestekoa da Irungo haurrak eta nerabeak berak jakitun izatea eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989) ezagutzea. Era berean, onartu ere egin behar dute eskubide horiek erabiltzeak zer inplikatzen duen eta horren

0. INTRODUCCIÓN

La participación de las niñas, niños y adolescentes de Irun en la vida de la ciudad, en los asuntos que les afectan y su capacidad de incidir en las instituciones municipales y ser parte de las decisiones que se toman en ellas es uno de los principales objetivos de I Plan de Infancia y Adolescencia 2021-2024. El Ayuntamiento de Irun es consciente que niños y niñas y adolescentes son ciudadanos/as de pleno derecho y por eso uno de los principios de actuación de este plan, se basa en reorientar la acción municipal para pasar de la construcción de una ciudad para la infancia a tratar de construir un espacio público y un entorno local junto con la infancia y la adolescencia, al reconocerla como sujeto político de pleno derecho.

Pero para ello, resulta imprescindible que los propios niños, niñas y adolescentes de Irun sean conscientes y conozcan la Convención sobre los Derechos del Niño/a (1989) y acepten las implicaciones que el ejercicio de esos derechos supone y trabajen en base

arabera lan egin, haiei buruzko pertzepzio murriztailea gaindituz, benetan direna baino gaitasun gutxiagokotzat hartzen ditu- eta pertzepzio horrek. Ekintza sustatu behar da, baina subjektu herritar baten ikuspegitik, hau da, kontuan hartuta eskubideen jabe dela eta, konpromisoan eta erantzukizunean oinarrituta lan eginez, betebeharrak ere badituela.

Alde horretatik, haurrek eta nerabeek parte hartzeko organo eta gune autonomoak artikulatu eta sortu behar dira, biztanle-talde horri aukera emango diotenak herritartasun aktiboa iraunkortasunez garatzeko, betiere euren ikuspegietatik, lehentasunetatik, lan egiteko moduetatik eta antolamendutik abiatuta, horrela sentituko eta izango baitira aldaketarako eragile hiriko dinamiketan, beren etorkizuna eta Irun herriarena eraikitzen parte hartuz.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Irungo 6 urtetik 17ra bitarteko haurren eta nerabeen parte-hartzea dinamizatzea. Horretarako, proiektu bat diseinatu eta egingo da, eta proiektu horrek lan-proposamen bat garatuko du haurren eta nerabeen parte-hartzearen eta eskubideen esparruan, Irungo Haur eta Nerabeen Partaidetza Foroak dinamizatuz eta mantenduz.

Entitate esleipendunak proposamenak diseinatu, dinamizatu eta ebaluatu beharko ditu, haur eta nerabeek udal-bizitzan parte har dezaten, talde-dinamikako teknikak aplikatuz; hori guztia haurren eskubideen ikuspegitik.

a ella, superando una percepción reductiva que los ve y los hace menos capaces de lo que en realidad son. Se trata de fomentar la acción desde una perspectiva de un sujeto ciudadano que es poseedor de derechos y que, trabajando desde el compromiso y la responsabilidad, también es depositario de deberes.

Cabe señalar en este sentido la necesidad de articular y crear órganos y espacios autónomos de participación infantil y adolescente que permitan a este grupo de población desarrollar de manera permanente una ciudadanía activa, partiendo de sus perspectivas, sus prioridades, sus formas de trabajo y organización, de modo que se sientan y sean agente de cambio en las dinámicas de la ciudad, participando en la construcción de su futuro y el de Irun.

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la Dinamización de la Participación Infantil y Adolescente para la población de 6 a 17 años de Irun, que se traduce en el diseño y realización de un proyecto que desarrolle una propuesta de trabajo en el ámbito de la participación infantil y adolescente y de los derechos de la infancia, dinamizando y manteniendo el Foro de participación de Infancia y el Foro de participación de Adolescencia de Irun.

La entidad adjudicataria deberá diseñar, dinamizar y evaluar propuestas orientadas al desarrollo de la participación infantil y adolescente en la vida municipal, aplicando técnicas de dinámica de grupos, todo ello en un enfoque de derechos de infancia.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

2. HELBURUAK

Helburu orokorrak:

1. Haurren eta nerabeen parte hartzeko eskubidea bermatzea, herritar aktiboak eta arduratsuak izateko baldintza baita. Horretarako, beharrezko baldintzak eta baliabideak sortu behar dira, beren burua ordezka dezaten eta Irungo dinamika sozial eta instituzionalen parte izan daitezen.

2. Haur eta nerabeen ordezkaritzarako eta partaidetzarako gune autonomoak sortzea eta dinamizatzea, enfasia Haurren eta Nerabeen Foroan jarrita. Horretarako zabaldu egingo da lehendik dauden gune eta prozesuen arteko komunikazioa, trukea eta lotura, eta bermatu egingo da parte-hartzeak aniztasun osoa islatuko duela.

Helburu espezifikoak:

1. Haur eta nerabeen parte hartzea eta eskubideak sustatzea Irungo haur eta nerabeen artean.

2. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa ezagutaraztea, udal-mailan zein eskola-mailan, hainbat bidetatik.

3. Haurrek udal-mailan parte hartzeko moduak eta formulak sustatzea, bertako haurren beren aniztasuna errespetatuko dutenak.
4. Haur eta nerabeek udal-mailan parte har dezaten bultzatzea.
5. Haur eta nerabeek komunitatearen alde ekarpen sortzaile eta eraikitzaileak egin ditzaten bultzatzea.
6. Haur eta nerabeentzat interesgarriak diren eragileekin koordinatzea, haur eta nerabeen aldeko tokiko politika inklusiboak

2. OBJETIVOS

Objetivos generales:

1. Garantizar el derecho a la participación de la población infantil y adolescente, como condición de ciudadanía activa y responsable, creando las condiciones y poniendo los medios necesarios para que se represente a sí misma y sea parte de las dinámicas sociales e institucionales de Irun.

2. Propiciar la creación y dinamización de espacios autónomos de representación y participación infantil y adolescente, con énfasis en el Foro de la Infancia y adolescencia, ampliando la comunicación, intercambio y conexión entre los distintos espacios y procesos ya existentes y garantizando que la participación refleje toda su diversidad.

Objetivos específicos:

1. Promocionar la participación infantil y adolescente y los derechos de las infancias entre los niños, niñas y adolescentes de Irun, en adelante NNA.
2. Impulsar por diversos medios el conocimiento de la Convención de los Derechos de la Infancia tanto a nivel municipal como escolar.
3. Promover formas y fórmulas de participación infantil a nivel municipal respetuosas con la diversidad de la propia infancia local.
4. Potenciar la participación de los NNA en la vida municipal.
5. Impulsar contribuciones creativas y constructivas de los NNA a favor de la comunidad.
6. Coordinación con los agentes de interés para la infancia y adolescencia para impulsar políticas locales inclusivas de la

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

sustatzeko.'

7. Irungo Haur eta Nerabeen Partaidetza Foroa mantentzea eta sendotzea.

8. Haurren Partaidetza Foroaren saioak dinamizatzea eta haien kohesioa, ahalduntzea eta aitorpen soziala sustatzea.

9. Partaidetza Foroak egiten dituen eskaerei erantzuteko beharrezkoak diren jarduketak laguntzea eta koordinatzea.

3. ZERBITZUA EMATEA

Kontratazioa 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan izango da, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturtetara luzatzeko aukerarekin.

Oro har, urriaren 1etik uztailaren 15era gauzatuko da proiektua. Urritik ekainera bitartean esku hartuko da xedeko publikoarekin, eta uztaileko lehen hamabostaldian, berriz, ebaluazio-lanak egingo dira.

Zerbitzuaren ordutegia malgua da, helburuak lortzera bideratuta dago, eta lantzen den arloaren arabera aldatuko da.

Kasuan-kasuan egokienak diren guneetan emango da zerbitzua. Ahal dela, astelehenetik ostiralera bitartean esku hartuko da harremanetarako guneetan: eskolak, udal zerbitzuak (Haurtxokoak, Gaztelekua...) . Hala ere, egunak eta ordutegiak aldatu ahal izango dira, eskari berrien arabera, eta eskainitako zerbitzuen egokitasuna eta aipatutako helburuen lorpen-maila kontuan hartuta, baina horrek ez du inolako aldaketarik eragingo kontratua egikaritzeko kalitatean. Edonola ere, aipatutako aldaketak egiteko, Udalak

infancia y adolescencia.

7. Mantener y potenciar el actual Foro de Participación Infantil y Adolescente de Irun.

8. Dinamizar las sesiones del Foro de Participación Infantil y promover su cohesión y empoderamiento y reconocimiento social.

9. Acompañar y coordinar aquellas actuaciones necesarias para dar respuesta a las peticiones formuladas por el Foro de Participación.

3. PRESTACIÓN DEL SERVICIO

La prestación del proyecto se realizará en el periodo correspondiente a los cursos lectivos 2021-2022 y 2022-2023, prorrogable a los cursos 2023-2024 y 2024-2025.

Como norma general la ejecución del contrato se desarrollará del 1 de octubre al 15 de julio. Las intervenciones con el público objetivo se desarrollarán de octubre a junio, mientras que durante la primera quincena de julio se llevarán a cabo trabajos de evaluación.

El horario de funcionamiento del servicio es flexible, está orientado a la consecución de los objetivos y variará en función del área de acción que se aborde.

La prestación del servicio se realizará en los espacios más adecuados en cada caso: centros escolares, servicios muncipales (Haurtxokos, Gazteleku)... Las intervenciones en los espacios de relación se darán preferentemente, de lunes a viernes pudiendo ser modificados, días y horarios, en función de nuevas demandas, idoneidad de los servicios ofrecidos y grado de cumplimiento de los objetivos anteriormente citados, sin que ello suponga modificación alguna en la calidad de la ejecución del contrato. Dichas modificaciones deberán

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

aldeko txostena egin beharko du aurretik.

4. PROGRAMAREN ESPARRUA

Dinamizazio-zerbitzua Haurren Partaidetzarako Foroan eta Nerabeen Partaidetzarako Foroan parte hartzen dutenentzako da, eta baita 6 urtetik 17ra bitarteko herritarrentzat ere, baldin eta proposatzen diren partaidetza-dinamiketan sar badaitezke interes, lotura eta hurbiltasun arrazoiengatik.

Irungo haur eta nerabeek parte hartuko dute dinamiketan, eta udalerriko haurren eta nerabeen errealitatearen aniztasuna islatuko dute. Horretarako, laguntza sustatuko dute ikastetxeetatik, udal-zerbitzuetatik (Haurtxokoak, Gaztelekua, Konekta eta Ingurune Irekia) eta udalerriko gizarte-, kultura- eta kirol-entitateetatik.

5. JARDUERA ARLOAK

Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzuak finkatzen dituen helburuak lortzera bideratuta egongo da zerbitzuaren kudeaketa.

Arau orokor gisa, entitate esleipendunak honako jarduera-arlo hauek garatuko ditu gutxienez:

5.1. Irungo Haurren eta Nerabeen Foroen funtzionamendua kudeatu eta dinamizatuko du, lantalde guztietako ordezkaritzarekin sareko egitura bat mantenduz inplikatutako zentro, zerbitzu eta prozesu guztietan:

a) Haurren Foroaren 2 saio

contar con un informe previo favorable del Ayuntamiento.

4. ÁMBITO DEL PROGRAMA

El servicio de dinamización está dirigido a los NNA integrantes del Foro de Participación Infantil y Foro de Participación Adolescente, así como a la población entre 6 y 17 años que por razones de interés, conexión y cercanía pueda incorporarse a las dinámicas participativas que se propongan.

Los NNA que se incorporen a las dinámicas participativas serán de Irun y representarán la diversidad de la realidad de la infancia y adolescencia del municipio, promoviendo para ello el acompañamiento desde centros escolares, servicios municipales como los Haurtxokos, Gazteleku y Konekta y Medio Abierto, así como de entidades de carácter social, cultural y deportivo del municipio.

5. AREAS DE ACTUACIÓN

La gestión del servicio estará orientada a la consecución de los objetivos establecidos por el Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Irun.

Como regla general, la entidad adjudicataria desarrollará como mínimo las siguientes áreas de actuación:

5.1. Gestionar y dinamizar el funcionamiento de los Foros de Infancia y de Adolescencia de Irun manteniendo una estructura en red con representación de todos los grupos de trabajo en los diversos centros, servicios y procesos involucrados:

a) Celebrar 2 sesiónes conjuntas del

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

bateratu ikasturte bakoitzean.

b) Nerabeen Foroaren 2 saio bateratu ikasturte bakoitzean.

c) Lantaldeekin lan-saioak egingo ditu Irungo Haurren eta Nerabeen Foroan parte hartzen duen eskola edo zerbitzu bakoitzean (6 saio talde bakoitzeko gutxienez).

d) Abian jarriko du Foroaren eta sarean parte hartzen duten lantaldeen jarduerari buruzko komunikazio-, informazio- eta dokumentazio-sistema bat, haurrentzako eta gazteentzako hizkuntza egokia erabiliko duena. Gainera, erraz sartu ahal izango da bertan, eta Irungo Haurren eta Nerabeen Foroekin batera kudeatuko da.

e) Urtero definituko du Foroaren antolaketa eta funtzionamendua, haurren eta nerabeen lantaldeek sortutako proposamenetan oinarrituta.

f) Haurrek eta nerabeek egin beharreko ekintzak planifikatu (urtean behin) eta abian jarriko ditu, haien lehentasunetan oinarrituta eta udalarekiko elkarrizketa prozesuaren esparruan, eta udalak onartu egingo ditu proposamen horiek.

g) Urteko ebaluazio-ekintzak egitea. Horietan, nolako gogobetetze-

Foro de la infancia a lo largo de cada uno de los cursos.

b) Celebrar 2 sesión conjuntas del Foro de la adolescencia a lo largo de cada uno de los cursos.

c) Desarrollar sesiones de trabajo con los grupos de trabajo en cada centro escolar o servicio que participe en el espacio del Foro de Infancia y Adolescencia de Irun (6 sesiones por cada grupo como mínimo).

d) Puesta en marcha de un sistema de comunicación, información y documentación acerca de la actividad del Foro y de los grupos de trabajo que participan en la red, que utilice un lenguaje adecuado a la población infanto-juvenil, que sea fácilmente accesible a la misma y sea co-gestionado por el Foro de Infancia y Adolescencia de Irun.

e) Definición anual de la organización y el funcionamiento del Foro en base a las propuestas generadas por los grupos de trabajo de NNyA.

f) Planificación (anual) y puesta en marcha de las acciones a realizar por NNyA en base a sus priorizaciones y en el marco del proceso de diálogo con el ayuntamiento y la aprobación de esas propuestas por el mismo.

g) Acciones de evaluación anual donde NNyA expresen su grado

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA UNTAMIENTO DE IRUN

maila duten adieraziko dute, haurrek eta nerabeekin parte hartzeko foroen funtzionamenduari dagokionez, eta hobetzeko proposamenak jasoko dira hurrengo urterako.

de satisfacción con el funcionamiento de los Foros de participación infantil y adolescente y se recojan propuestas de mejora de cara al próximo año.

5.2. Haurren eta Nerabeen Foroa indartzea:

a) DBHko gero eta zentro gehiago sartzea pixkanaka. Gutxienez 5 eskola 2021-2022 ikasturtean eta 6 eskola 2022-2023 ikasturtean

b) LHko gero eta zentro gehiago sartzea pixkanaka. Gutxienez, 4 eskola 2021-2022 ikasturtean eta 5 eskola 2022-2023 ikasturtean.

c) Udalerriko haurren eta nerabeen udal-zerbitzuak sartzea Haurrek eta Nerabeek Parte hartzeko Foroaren dinamikan: Haurtxokoak, Gaztelekua Konekta eta Ingurune Irekiko zerbitzuak.

d) Batxilergoko eta lanbide-heziketako 18 urtetik beherako ikasleak integratzeko moduak identifikatzea.

e) Barne-lana zentro bakoitzean, bermatu behar baita, alde batetik, foroan zuzenean parte hartzen duten haurrek eta nerabeek talde guztien iritzia eta definizioak eramango dituztela, eta, bestetik, foroan landutakoa barnean zabalduko dela eta

5.2. Fortalecimiento del Foro de Infancia y Adolescencia:

a) Integración progresiva de nuevos centros de DBH. Mínimo 5 centros en el curso 2021-2022 y 6 centros en el curso 2022-2023,

b) Integración progresiva de nuevos centros de LH. 4 centros en el curso 2021-2022 y 5 centros en el curso 2022-2023.

c) Integración de los servicios municipales de infancia y adolescencia del municipio en la dinámica del Foro de participación infantil y adolescente: Servicio de Haurtxokos, Gazteleku, Konekta y Medio Abierto.

d) Identificar formas de integración de estudiantes de bachillerato y formación profesional menores de 18 años.

e) Trabajo interno en cada centro para garantizar, por un lado, que los niños/as y adolescentes que participan de manera directa en el foro lleven el sentir y las definiciones de todos los grupos, y, por el otro, la difusión interna de lo trabajado en el Foro y la

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

dituen inplikazioak ikastetxearen zereginean integratuko dituztela.

f) Lan-sistema egituratua eta aldi berean tartean sartuta dauden zentroen eta zerbitzuen egoerak, prestasunak eta lan egiteko moduak errespetatuko dituena ezartzea eta martxan mantentzea, Foroaren funtzionamenduaren inguruan inplikatutako langile helduekin (teknikariak, hezkuntzako langileak, zerbitzuetako begiraleak, etab.) komunikazio arina izanez.

5.3. Haurrek eta nerabeek parte hartzeko espazioak eta prozesuak konektatzea, antolatzea eta kualifikatzea:

a) Mapatzea (haien osaera eta funtzionatzeko modua barne).

b) Garatutako prozesuak sustatzaileekin batera aztertzea, eta haien asmamen eta zailtasun nagusiak identifikatzea.

c) Egokitzea, beharrezkoa bada, haurrek eta nerabeek udalerrian parte hartzeko sistema koherente eta interkonektatu bakar batean oinarrituta.

d) Komunikazio-sistema egokia abian jartzea.

e) Espazio horiek metodologi partizipatiboen bidez dinamizatzeko lanean laguntzea, gero eta autonomoagoak izan

integración de sus implicaciones en el que hacer del centro.

f) Establecer y mantener en funcionamiento un sistema de trabajo estructurado y, a la vez, respetuoso con las diferentes situaciones, disponibilidades y formas de trabajo de los centros y servicios involucrados, manteniendo una comunicación fluida con el personal adulto involucrado alrededor del funcionamiento del Foro (técnicos/as, personal educativo, monitores/as de servicios, etc.).

5.3. Conectar, articular y cualificar los diferentes espacios y procesos de participación de niños/as y adolescentes existentes:

a) Mapearlos (incluyendo su composición y forma de funcionamiento).

b) Analizar conjuntamente con sus impulsores los procesos desarrollados, identificando sus principales aciertos y dificultades.

c) Adecuarlos (si es necesario) en base a un único sistema coherente e interconectado de participación infantil y adolescente en el municipio.

d) Puesta en marcha de un sistema de comunicación adecuado.

e) Apoyo al trabajo de dinamización de dichos espacios en metodologías participativas para que sean cada vez más

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

daitezen.

5.4. Haurren eta gazteen partaidetzako espazio guztietan ikuspegi inklusiboa bermatzea osaerari dagokionez, honako aldagai hauen arabera: generoa, jatorria eta kulturartekotasuna, dibertsitate funtzionala, klase soziala, bizitokia, etab.

a) Egungo osaera berrikusiz eta, beharrezkoa bada, zabalduz.

b) Garatu beharreko prozesuan/proposamenetan/ekintzetan ahotsek duten presentzia (aniztasuna) aztertuz eta parte hartze inklusiboa eta plurala izateko oztopoak eta faktoreak identifikatuz.

5.5. Hainbat entitatetan, hala nola udalerriko elkarte eta klubetan, parte hartzeko espazio gehiago indartzeko eta sortzeko bultzada ematea.

6. LANGILEAK

Zerbitzuaren ezaugarriak eta zerbitzua egoki gauzatu behar dela kontuan hartuta, gutxienez honako lantalde hau osatu behar da:

Koordinatzaile-dinamizatzaile 1
2 dinamizatzaile

Esleipendunak kontratua egikaritzeko atxikitzen dituen langileek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

6.1. Prestakuntza akademikoa

autónomos.

5.4. Garantizar que todos los espacios de participación infanto-juvenil tengan una perspectiva inclusiva en cuanto a su composición según las variables de género, de procedencia e interculturalidad, diversidad funcional, clase social, residencia, etc.

a) Revisando su composición actual y, si es necesario, ampliándola.

b) Analizando la presencia de las diversas voces (diversidad) en el proceso/propuestas/acciones a desarrollar e identificando los obstáculos y los factores que facilitan una participación inclusiva y plural.

5.5. Impulso para el fortalecimiento y la creación de más espacios de participación en distintas entidades, como las asociaciones y clubes del municipio.

6. PERSONAL

Las características del servicio y la adecuada ejecución del mismo requiere la presencia como mínimo del siguiente equipo de trabajo:

1 persona coordinadora-dinamizadora
2 personas dinamizadoras

El personal que el adjudicatario adscriba a la efectiva ejecución del contrato deberá cumplir los siguientes requisitos:

6.1. Formación académica

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

KOORDINATZAILE-DINAMIZATZAILEAK:
Unibertsitate-gradua edo baliokidea gizarte-zientzien eta giza zientzien alorrean.

DINAMIZATZAILEAK:
Diplomatura edo baliokidea gizarte-zientzien eta giza zientzien alorrean.

6.2. Lan-esperientzia

KOORDINATZAILE-DINAMIZATZAILEAK, gutxienez, 200 orduko lan-esperientzia akreditatu beharko du taldeak koordinatzen , eta 200 orduko lan-esperientzia haur- edo/eta gazte-taldeak dinamizatzen.

DINAMIZATZAILEEK, gutxienez, 200 orduko lan-esperientzia akreditatu beharko dute haur- edo/eta gazte-taldeak dinamizatzen.

6.3. Euskara:

Zerbitzua betetzera benetan atxikitako langile guztiek hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 mailaren pareko euskara-maila egiaztatu beharko dute.

6.4. Profilen funtzioak

Ondoren, orientazio gisa eta ez zehatz-mehatz, profil bakoitzari dagozkion zereginak adierazten dira:

Koordinatzaile-dinamizatzailea:

a) Lantaldea antolatzea

- Zereginak eta egiteko aldiak antolatzea
- Dinamizatzaileekin batera

Persona COORDINADORA-DINAMIZADORA:
Grado universitario o equivalente en la rama de las ciencias sociales y las humanidades.

Personas DINAMIZADORAS:
Diplomatura o equivalente en la rama de las ciencias sociales y las humanidades.

6.2. Experiencia laboral

La persona COORDINADORA-DINAMIZADORA deberá acreditar, al menos, 200 horas de experiencia laboral en coordinación de equipos y 200 horas de experiencia laboral en dinamizar grupos infantiles y/o juveniles.

Las personas DINAMIZADORAS deberán acreditar, al menos, 200 horas de experiencia laboral en dinamizar grupos infantiles y /o juveniles.

6.3. Euskera:

Todo el personal efectivamente adscrito a la ejecución del servicio deberá acreditar un nivel en euskera equivalente al C-1 del Marco Común Europeo de referencia para las lenguas.

6.4. Funciones de los diferentes perfiles

A continuación se indican, con carácter orientativo y no exhaustivo, las tareas correspondientes a los diferentes perfiles:

Persona coordinadora-dinamizadora:

a) Organización del equipo de trabajo

- Organizar las tareas y los tiempos para su desarrollo
- Organizar junto con las personas

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

guneak, eta ekintzak eta jarduerak antolatzea
- Baliabide materialak kudeatzea eta beharrak aztertzea eta jakinaraztea

b) Dinamizatzaileei laguntza teknikoa ematea
- Lantaldearen eta zerbitzuaren martxaren jarraipena egitea
- Lantaldea aholkatzea bere lanean.

c) Plangintza/ebaluazioa
- Zerbitzua planifikatu aurretik beharrak ebaluatzeko prozesuaren buru izatea
- Zerbitzua planifikatzeko prozesuaren buru izatea
- Zerbitzuaren jarraipena egitea
- Memoriak, txostenak eta antzeko dokumentuak prestatzea

d) Komunikazioa, harremanak eta ezaupideen kudeaketa
- Gazteria Zerbitzuko teknikariekin koordinatuta lan egitea

- Dinamizatzaile-taldea koordinatzeko bileretan buru izatea
- GazteARTEan Mahaian (Udalaren Gazteria Zebitzua) eta beste udal arlo batzuekin koordinatzeko antolatzen diren bileretan parte hartzea, baldin eta nerabe eta gazteen interesekoak badira eta bertan egotea estrategikotzat hartzen bada
- Udalerriko hezkuntza-zentro, udal-zerbitzu eta gizarte-eragileen koordinazioaren buru izatea

dinamizadoras espacios, acciones y actividades
- Gestionar recursos materiales y analizar y notificar las necesidades

b) Acompañamiento técnico a personas dinamizadoras
- Realizar el seguimiento del equipo y del desarrollo del servicio
- Asesorar al equipo en su trabajo

c) Planificación/Evaluación
- Liderar el proceso de evaluación de necesidades previo a la planificación del servicio
- Liderar el proceso de planificación del servicio
- Realizar el seguimiento del servicio
- Elaborar memorias, informes y documentos similares

d) Comunicación, relaciones y gestión del conocimiento
- Trabajar en coordinación con los técnicos/as del Servicio de Juventud
- Liderar las reuniones de coordinación del equipo de dinamizadores
- Participar en la Mesa GazteARTEan (Servicio de Juventud municipal) así como en reuniones de coordinación con otras áreas del Ayuntamiento de interés para adolescencia y juventud en las que su presencia se considere estratégica

- Liderar la coordinación con centros educativos, servicios municipales y agentes sociales del municipio

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

e) Eta, gainera, dinamizatzaileen perfilak berezko dituen funtzio guztiak

Dinamizatzaileek:

a) Zuzeneko arreta

- Ekintzak diseinatzea eta garatzea, betiere helburutzat hartuta haur eta nerabeek beren iritziak adierazteko eta eskubide osoko subjektu gisa dituzten eskubideak erabiltzeko topaguneak sortzea
- Mekanismoak ezartzea xedeko publikoaren proposamenak ezagutzeko eta kanalizatzeko
- Behar berriak detektatzea eta identifikatzea, behaketaren bidez, errealitatea ezagutuz eta hartzaileekin harremanetan egonez
- Programatzen diren ekintza eta jarduerak gauzatzea
- Gune eta baliabideen erabilera antolatzea eta diseinatzea

b) Plangintza/ebaluazioa

- Dinamizazio-zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea

c) Komunikazioa, harremanak eta ezaupideen kudeaketa

- Zerbitzua ezagutarazten laguntzea
- Zerbitzuaren jardueretan parte hartzen dutenen datuak biltzea
- GazteARTEan Mahaiaren

e) Y además todas aquellas funciones propias del perfil de la personas dinamizadoras

Personas dinamizadoras:

a) Atención directa

- Diseñar y desarrollar acciones que tengan como objetivo generar espacios de encuentro para que niños/as y adolescentes expresen sus opiniones y ejerzan sus derechos como sujetos de pleno derecho
- Establecer mecanismos con el objetivo de conocer y canalizar las propuestas del público objetivo
- Detectar e identificar nuevas necesidades mediante la observación, conocimiento de la realidad y las relaciones con las personas destinatarias
- Desarrollo de las acciones y actividades programadas
- Organizar y diseñar la utilización de espacios y recursos

b) Planificación/evaluación

- Participar en los proceso de planificación y evaluación de servicio de dinamización

c) Comunicación, relaciones y gestión del conocimiento

- Colaborar en labores de difusión y comunicación del servicio
- Recopilación activa de datos de las personas participantes en actividades del servicio
- Participar en dos convocatorias al

gazte ARTEan
IRUNGO UDALA UDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

(Udaleko Gazteria Zerbitzua) urteko bi deialdietan parte hartzea

año de la Mesa GazteARTEan (Servicio de Juventud municipal)

6.5. Ordezkapenak:

Langileak ordezkatu behar izanez gero, hasieran aurkeztutakoaren pareko prestakuntza-maila eta lan-esperientzia izan beharko dute ordezkoek, hizkuntza eskakizunak barne, eta lehenbailehen egiaztatu egin beharko da hori, jatorrizko ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuta, betiere ordezkoak lanean hasi aurretik.

6.5. Sustituciones:

En caso de sustitución del personal, éste deberá mantener un nivel equivalente de cualificación y experiencia profesional al del presentado inicialmente, incluyendo las exigencias lingüísticas, acreditándolo convenientemente en el plazo de tiempo más breve posible, esto es, con certificados originales o fotocopias compulsadas, y siempre antes de la incorporación de la persona sustituta al puesto de trabajo.

6.6. Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

6.6. Certificación negativa del Registro central de Delincuentes sexuales.

7. ALDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK

7.1. Enpresa esleipendunarenak:

Horrelako zerbitzu batek berezkoak dituen lanak egiteaz arduratuko da esleipenduna; gutxienez honako hauek:

a) Zerbitzua planifikatzea, kudeatzea eta ebaluatzea, Gazteriako udal-teknikariarekin koordinatuta.

b) Beharrezko talde teknikoa izendatzea eta prozesuan mantentzea, bai eta beharrezko baliabide tekniko eta material guztiak ere, lokomozio-baliabide pertsonalak barne.

c) Langileek egiten duten lana koordinatzea eta gainbegiratzea,

7. DERECHOS Y DEBERES GENERALES DE LAS PARTES

7.1. De la empresa adjudicataria:

El adjudicatario se encargará de ejecutar las tareas que exige un servicio de estas características, y al menos las siguientes:

a) Planificación, gestión y evaluación del servicio en coordinación con el/la técnico/a municipal de juventud.

b) Designar y mantener en el proceso el equipo técnico exigido, así como todos los medios técnicos y materiales necesarios, medios de locomoción personal necesarios incluidos.

c) Coordinación y supervisión del trabajo que desarrolla el personal para

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

zerbitzuak behar bezala funtziona dezan eta helburuak lor daitezen.

conseguir un adecuado funcionamiento y cumplimiento de los objetivos.

d) Departamentuko gainerako programa eta zerbitzuen arduradunekiko informazio bileretan aktiboki parte hartzea eta helburu komunak dituzten proiektu eta jardueretan laguntzea.

d) Participación de forma activa en las reuniones informativas con los responsables del resto de programas y servicios del departamento, colaborando en proyectos y actividades con objetivos compartidos.

e) Baldin eta langileren bat bi egunez jarraian lanera agertzen ez bada, hura ordezkatzea, egoki deritzen bideetatik, betiere pleguhonek finkatzen dituen baldintzetan.

e) Sustitución del personal a partir del segundo día consecutivo de ausencia, por los medios que estime y siempre en los términos establecidos en este pliego.

f) Hileko txostenak egitea, egindako lanari eta antzemandako beharrei buruzko informazioa emateko eta hobekuntza proposamenak egiteko, eta urteko memoria egitea.

f) Elaboración de informes mensuales con información relativa a las acciones desarrolladas, necesidades detectadas y propuestas de mejora, así como una memoria anual.

g) Urteko memoria uztailean aurkeztuko da, eta honako alderdi hauek jasoko ditu gutxienez: zerbitzuaren garapena, funtzionamendua, estatistika-datuak, ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

g) La memoria anual se presentará en el mes de julio y contendrá como mínimo los siguientes aspectos: desarrollo del servicio, funcionamiento, datos estadísticos, evaluación y propuestas de mejora.

h) Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren alorrean daude xedapen guztiak betetze eta mota honetako kontratuentzat zehazki xedatutakoa Irungo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean. Araudi hori lizitatzaileen eskura dago Udal honetako kontratugilearen profilean (www.irun.org).

h) Cumplir todas las disposiciones relativas a la doble oficialidad lingüística de la Comunidad Autónoma del País Vasco y específicamente lo señalado para este tipo de contratos en el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Irun. Esta normativa se halla a disposición de los licitadores en el perfil de contratante de este Ayuntamiento (www.irun.org).

Bereziki, erabiltzaileak aukeratzen

En particular, para cumplir con la

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

duen hizkuntza erabiltzeko nahitaezkotasuna bermatuko da eta hori lortzeko lanak burutuko dituzten langile guztiek, haur eta gazteekin egongo direnak eta koordinazioaz arduratuko direnak honako euskara maila dutela egiaztatu beharko dute: Hizkuntza Erreferentziako Europako Marko Komuneko C1 edo baliokidea.

obligatoriedad de utilizar la lengua elegida por el usuario se deberá acreditar que todo el personal que trabaje en el programa tanto con las niñas y niños y los jóvenes, como el personal encargado de la coordinación tendrán el siguiente nivel de euskera: C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o equivalente.

Kontratugilearen eta kontratistaren arteko harremanetan euskara normalean erabiliko da.

En las relaciones entre el contratante y el contratista se utilizará normalmente el euskera.

Xede taldea euskararen ezagutza bermatzen duten hizkuntza ereduetan hezkuntza jasotzen duten haur eta gazteak izanik, programa euskaraz bideratuko da.

Siendo el grupo destinatario del programa niños, niñas y jóvenes que reciben educación en modelos lingüísticos que garantizan el conocimiento del euskera, el programa se desarrollara íntegramente en este idioma.

Enpresa esleipendunak sortzen duen dokumentazio oro euskaraz egongo da haur, gazteei edo ikastetxeetako taldeei zuzentzen bazaie (foroaren eta sarean parte hartzen duten lantaldeen jarduerari buruzko komunikazio-, informazio- eta dokumentazio-sistema, foroaren antolaketa eta funtzionamendua, proposamenak ezagutzeko eta kanalizatzeko sistema). Foro/taldean parte hartzen duen ikastetxe edo institutuetako bat dokumentazioa gaztelaniaz nahi balu espresuki eskatu behar du.

Toda la documentación que genere la empresa adjudicataria estará en euskera cuando se dirija a niños y niñas, jóvenes o grupos de centros educativos (sistema de comunicación, información y documentación sobre la actividad del foro y de los grupos de trabajo que participan en la red, organización y funcionamiento del foro, sistema de recogida y canalización de propuestas). Si alguno de los centros o institutos participantes en el foro/grupo quisiera la documentación en castellano deberá solicitarlo expresamente.

Euskaraz gutxienez egongo da gainerako dokumentazioa (ebaluazio lanak eta urteko ebaluazio-ekintzak, planifikazioa,

El resto de la documentación estará al menos en euskera (trabajos de evaluación y acciones de evaluación anuales, planificación, diseño de

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

ekintzen diseinua, zentroetan barne lanerako dokumentazioa, foroaren funtzionamenduaren inguruan inplikatutako langile helduekin komunikazioa, mapatzea egiteko dokumentazioa, udalerriko elkarte eta klubekin espazioak indartzeko proposamen idatziak, zerbitzua ezagutarazteko laguntza, datu bilketak...).

Enpresa esleipendunak berdin jokatuko du ahozko komunikazioetan. Haur, gazte edo ikastetxeetako taldeei zuzentzen zaien ahozko harreman oro euskaraz bideratuko da (foroen dinamizazioa, haur eta gazteentzat foroaren saio bateratuak, lantaldeekin lan-saioak, ekintzak, ahozko ebaluazio-ekintzak, prozesuaren aztertze eta egokitzapena, espazioak...)

Euskaraz gutxienez bideratuko dira gainerako agenteekin ahozko harremanak (ekintzak, urteko-ebaluazio ekintzak, foroaren funtzionamenduaren inguruan inplikatutako langile helduekin komunikazioa, harremanak, zerbitzua ezagutarazteko laguntzea...).

i) Irungo Udalarekin hitz egiteko pertsona bat izendatzea. Pertsonak horrek gaitasun osoa izango du enpresa esleipenduna ordezkatzeko eta haren izenean jarduteko Irungo Udalaren aurrean.

j) Telefono mugikor bat ematea zerbitzuaz arduratzen diren langileei.

acciones, documentación de trabajo interno en los centros, comunicación con el personal adulto implicado en el funcionamiento del foro, documentación de mapeo, propuestas escritas de refuerzo de espacios con asociaciones y clubes del municipio, apoyo para dar a conocer el servicio, recogida de datos...).

La empresa adjudicataria procederá del mismo modo en las comunicaciones orales. Toda relación oral dirigida a grupos de niños, niñas, jóvenes o centros escolares se canalizara en euskera (dinamización de foros, sesiones conjuntas de foros para niños, niñas y jóvenes, sesiones de trabajo con grupos de centro, acciones, acciones de evaluación oral, análisis y adecuación del proceso, espacios...)

Se canalizara al menos en euskera las relaciones orales con el resto de agentes (ejecución de acciones, acciones de evaluación anual, comunicación con el personal adulto implicado en el funcionamiento del foro, relaciones apoyo para dar a conocer el servicio...).

i) Designación de la persona que realizará la interlocución con el Ayuntamiento de Irun, que deberá tener la plena representación del adjudicatario y plena capacidad de obrar en representación de la empresa y ante el Ayuntamiento.

j) Puesta a disposición de un teléfono móvil para el personal encargado del

Servicio.

k) Udalaren Irudi Korporatiboa aplikatuko du kontratatutako zerbitzuak berezko dituen elementu guztietan eta bakoitzean (paperetan, bulegoetan, ibilgailuetan, instalazioetan, etab.), baina Udaleko Antolamendu eta Kalitate Zerbitzuarekin kontsultatu beharko du aurretik.

k) Aplicar la Marca Corporativa del Ayuntamiento en todos y cada uno de los elementos (papelería, oficinas, vehículos, instalaciones, etc.) propios del servicio contratado, debiendo previamente consultar con el Servicio de Organización y Calidad del Ayuntamiento.

l) Hizkuntza ez-sexista erabiltzea dokumentuetan, publizitatean, irudietan eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialean. Emakumeen diskriminazioa areagotzen duen irudirik ez erabiltzea eta berdintasuna, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta kideko balioak sustatzea. Era berean, genero-ikuspegia kontuan hartzea kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenetan, idazkietan, datu-bilketetan, estatistiketan...

l) Utilizar un lenguaje no sexista en la documentación, publicidad, imágenes y demás material resultante del contrato. Se evitará el uso de imágenes que redunden en la discriminación de la mujer y se potenciarán valores como la igualdad, la diversidad y la corresponsabilidad. Así mismo, se tendrá en cuenta la visión de género en los informes, escritos, recopilación de datos, estadísticas... que resulten de la ejecución del contrato.

m) 2016/679/EB Erregelamendua, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa bete. Hori dela eta, Irungo Udalarekin Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendurako Hitzarmen bat sinatu beharko da kontratua egoki gauzatzeko Irungo Udalaren ardura diren ondorengo datu jakin batzuen tratamendu-eragilea izango baita.

m) Respetar el Reglamento 2016/679/UE, de 27 de abril sobre Protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de Derechos Digitales. Por ello, habrá que suscribir un Convenio de Tratamiento de Datos con el Ayuntamiento de Irun ya que para la correcta ejecución del contrato, la empresa adjudicataria resultará encargada del tratamiento de una serie de datos de carácter personal de los que el Ayuntamiento de Irun es responsable.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

7.2. Udalarenak:

a) Haurren eta nerabeen parte-hartzea zuzendu, gainbegiratu eta koordinatuko du; eta entitate esleipendunarekin batera, jarraipen-batzorde bat sortuko du, kontratatutako lana koordinatzeko.

b) Proposamen metodologikoak gainbegiratuko ditu, eta baita herritarren eta inplikatutako eragileen parte-hartzearekin lotutako ekintzak ere.

c) Gune egokitu bat emango du, Partaidetza Foroak dinamizatzeko zeregin guztiak egiteko.

d) Jarduera aurrera eramateko eskuratzen eta/edo ordezten den ekipamendu eta material espezifikoa Udalarena izango da, kontratua amaitzen denean.

8. SALBUESPEN EGOERAK

Salbuespen kasuetan (osasun larrialdietan, segurtasuna bermatzea lehentasuna den kasuetan edo Udalak onartzen dituen gainerako salbuespen kasuetan), telematikoki eman ahal izango da zerbitzua, baina, egoerak bide ematen duen neurrian, aurrez aurreko zerbitzuarekin bateratzen saiatuko da, eta dagozkion neurriak hartuko dira.

Betiere, zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan osasun arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du. Edonola ere, aipatutako aldaketak egiteko, Udalak aldeko txostena egin beharko du aurretik.

7.2. Del Ayuntamiento:

a) La dirección, supervisión y coordinación de la participación infantil y adolescente, quien con la entidad adjudicataria, creará una comisión de seguimiento para realizar la coordinación del trabajo contratado.

b) Supervisará las diferentes, propuestas metodológicas, así como las acciones relacionadas con la participación de la población y los agentes implicados.

c) Facilitará el espacio acondicionado para realizar todas las tareas relacionadas con la dinamización de los Foros de Participación.

d) El equipamiento y material específico para el desarrollo de la actividad que se adquiera y/o reponga quedará en propiedad municipal finalizado el contrato.

8. SITUACIONES EXCEPCIONALES

En casos excepcionales -de urgencia sanitaria, en lo que la garantía de seguridad sea prioritaria o en los demás casos de excepción reconocidos por el Ayuntamiento- el servicio podrá prestarse telemáticamente. Si bien en la medida en que la situación lo permita, se tendera a compaginar con el servicio presencial, adoptando las medidas oportunas.

El servicio deberá ajustarse en todo momento a la normativa vigente en la Comunidad Autónoma Vasca en materia sanitaria. Dichas modificaciones deberán contar con un informe previo favorable del

Ayuntamiento.

Aipatutako egoeretan ematen diren zerbitzuek zerbitzuaren helburuekin bat etorri beharko dute, eta indarrean dagoen egoerara egokituko dira etengabe.

Los servicios que podrán prestarse en las situaciones descritas deberán coincidir con los objetivos del servicio y que se adecuaran constantemente a la situación vigente.

Zerbitzua aurrera eramateko zehaztutako lan taldea mantenduko da.

Para llevar a cabo el servicio se mantendrá el equipo de trabajo definido

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARIA Nº 57